

ARTEA TRUKEAREN TRUK

Obrak zerbitzuengatik trukatzen hasi da artista talde bat diruari uko eginez

📁 **KULTURA** / Oihane Larretxea de la Granja

Erreparatu al duzu inoiz egunean zehar zenbat bider erabiltzen duzun dirua? Zenbat transakzio egiten dituzun txanponak erabiliz? Dirua asmakizun zaharra da, baina are zaharragoa trukea. Produktu bat eskuratzeko beste bat eskaintzea. Ideia horretatik abiatuta, eta diruak neurtzerik ez dagoen guztiari, edo bai behintzat gauza askori, balioa galarazi diola sinetsita, Tolosaldeko artista talde batek Kulturtruk ekimena jarri du martxan. Funtsean, beren artelanak ez dituzte diruaren truk eskaini nahi, obraren bat eskuratu nahi duenak eskain dezakeen zerbitzu baten truke baidiz.

Miren Gonzalez Goikoetxea, Alberto Lertxundi, Ura Iturralde eta Arantxa Orbegozo artistekin egin dugu hitzordua. Aranburu

Tolosaldeko artista talde bat artea unibertsal bihurtzen. Nola? Ez dute dirua nahi beren obrenegatik, trukea sustatuz ordainetan zerbitzuak jasotzea baizik. Norberak ditugun gaitasunetan sinesten dute, eta, horrenbestez, edonork har dezake parte. Kulturtruk izena du ekimenak eta lehen urratsak baino ez ditu eman.

jauregian gaude, Tolosan, erai-kin eder honen lau paretek hartu baitute Kulturtruk ekimenaren baitan eskuragarri dauden artelanen lehen erakusketa. Ibiltaria izango da ordea, eta kontaktuan daude beste geroaleku batzuk adosteko. Hala ere, ekimenak Kulturtruk.com webgune propioa ere badu, eta, erakus-

ketak erakusketa, sarean beti egongo da bizirik. Obren bilduma eta parte hartzen duten artisten zerrenda daude bertan.

Ideia bosgarren kide batena izan zen, Ana Sanzena. Banku denboran ibili zen lanean eta bertako filosofia erabat konpartitzen zuen. Alegia, denborarekin "ordaintzen" da bata beste-

ari egindako mesedeen katea sortuz. Artean beste hainbeste egin zitekeela sinetsi eta ekimena abiatu zuen. Denek elkar eza- gutzen dute, Tolosaldekoak dire- lako eta artistak, eta denek, neurri handiagoan edo txikia- goan, egin dute inoiz trukeren bat.

Diruaz hizpide, aipatzen dute nola objektuak nahiz zerbitzuak baloratzeko garaian diruan pen- tsatzen dugun segituan. Eta gauza onak ahalbidetu dituen arren, adibidez, erietxeak, esko- lak, errepideak... eraikitzea, «es- pekulazioa eta neurrigabeko pi- laketa» ere ekarri dituela diruak uste dute Kulturtruk.

Arteari aplikatuta, saleroske- tak erraztu ditu, noski, mundu- ko punta batean koadro bat sal- gai duen artistak beste puntan dagoen bezeroari saltzeko, adi- bidez, baina desabantailak ere ekarri dituela uste dute. Nabar-

Tolosako Aranburu jauregian gaur arte ikusgai eta trukatzeko egondako obrak eta beren egileetako batzuk. Eserita, Lore Amenabar akordeoilaria. Gorka RUBIO | ARGAZKI PRESS



**Pablo Picasso margolariak bere marrazkiak
New Yorkeko Chelsea hotolean gauak
pasatzearen truke eskaintzen zituen eta
Miquel Barcelok oliba olioaren truke**

menena, artea dirua duten per-
tsonetara mugatzea. «Eta dirua
alde batera utziko bagenu?»,
galdegin dute. Ez da erokeria, ez-
ta gauza berria ere. Gogorarazi
dutenez, Pablo Picasso margola-
riak berak bere marrazkiak ema-
ten zituen New Yorkeko Chelsea
hotolean ostatu hartzearen tru-
ke, baita Miquel Barcelok oliba
olioaren truke ere.

Dirurik gabe zer egingo genu-
keen galdetu dute eta geuk gal-
dera bueltatu diegu. Arantxa
Orbegozo margolariak argi du:
«Jende gehiagok izango luke ar-
tearen merkatuan parte hartze-
ko aukera. Halako ekimenek ar-
tean inbertituko ez lukeen
jendea erakartzen dute, edo
nahi bai baino ezin duen jendea,
lehentasunak daudelako eta
obrak baino lehenago beste be-
har pila daudelako. Artea, fine-
an, ireki egiten da. Niri trukea-
ren bidez beste modu batera
artea erosiko ez lukeenak hartu
izan dit obraren bat», kontatu
du. Artea zerbait «esklusiboa»
izatetik «unibertsala izatera»
igarotzen dela defendatzen du-
te, eta hori aberasgarria da.

Alberto Lertxundi bide be-
rriak zabaltzeaz mintzo da,
nahiz eta trukearena oso bide
zaharra izan. Usadioa, ordea, ez
dago hedatuta. «Zenbat aldiz
entzun dugu ‘nik erosiko nizuke
baina...’ esaldia? Badakigu ba-
tzuetan eskatutako diru kopu-
ruak jartzea zaila dela». Edozein
kasutan, jendea beldurra gaine-
tik kentzera animatzen du Ler-
txundik, gertura dadila museo,
galeria, kultur etxe eta erakus-
keta aretoetara. Begiratzera soi-
lik. «Galeriak, adibidez, museo
txikiak bezala ulertu behar ditu-
gu. Ez dago zertan erosi. Ohitura
hori falta zaigu. Eta beldur hori
dagoenez, agian formula hone-
kin errazagoa izango da».

Gonzalezek erabat parteka-
tzen ditu Lertxundiren hitzok.
Bere iritziz, erakusketa aretoe-
tan ez dago, jendearen aldetik,
«martxa handirik», eta ekimen
honek «poza» eman diezaioke
bisitariari piezak eskuragarri di-
tuela erakutsiz. Horrek, bere us-
tez, bisitariaren eta autorearen
artean egon daitezken «hesiak»
puskatzen lagun dezake.

**Artea erakusgai den aretoei diogun beldurrari,
eskaintzeko dugunaren inguruan dugun
beldurra eransten zaio. Artisten iritziz, usteak
gainditu eta hitz egiten jartzea lehen urratsa da**

Trukea egin ahal izateko, nor-
berak zerbitzu bat edo produktu
bat eskaini behar du, baina, zer
eskaini? Hemen norberaren bel-
durra, lotsak, kezka edo zalan-
tzak agerian gelditu daitezke, bai-

na ausarta izatera animatzen
dute, erreparatzen alboratzera,
nork bere buruan eta bere gaita-
suetan sinestera denok dugu-
lako zer eman. «Denok», azpi-
marratu dute.

Ura Iturralde argazkilaria bi-
daietan eta erreportajeetan es-
pezializatu da, eta egun Cordon
Press argazkilaria agentzian ari
da lanean. GARAk igandeetan
kaleratzen duen ZAZPIKA aldiz-
kariarekin ere berriki kolabora-
tu du. Kontatzen duenez, bere
egunerokotasunean behar pila
bat ditu. «Konturatzen naiz zein
ona izango litzatekeen informa-
tikari bat izatea, itzultzaile
bat...», dio, argituz Kulturtruke-
n ez dela artea arteagatik truka-
tzea sustatu nahi, baizik eta ar-
tea edozein zerbitzu edo pro-
duktugatik trukatzeko. «Hau da,
baten beharrak ase ahal izatea
besteak nahi duen artelan bate-
kin». «Hori da –eransten du Or-
begozok–. Hain justu kontrakoa
behar dugu, ez artea».

BELDURRAK GAINDITUZ

Aretoetara sartzeko dugun bel-
durraz, trukea egin ahal izateko
eskaintzeko dugunaz sentitzen
dugun beldurrera. Zama gehiegi
jartzen al dizkiogu geure burua-
ri? Tratua egiteko pentsamen-
dua irekia eta elkarriketarako
gaitasuna izatea oso baliagarria
dela azpimarratzen dute. Lehen
unean zer eskaini ez dakienak
artistarekin hitz egin besterik ez
du, lehenago edo beranduago,
«eureka!», gakoan emateko.
«Zuk esadazu zer duzun emate-
ko, agian nire margolari zeregi-
nak balio du zerbaiterako. Agian
ez duzu koadro bat nahi, eta zu-
re beharra zure negozioan mu-
ral bat egitea da, edo altzari bat
margotzea... Balioa ez da di-
rui –ohartarazten du Orbego-
zok–, baizik eta denbora eta ja-
kinduria. Zure denbora eta ja-
kinduriagatik», laburbildu du.

Formula anitza den erakusle,
Iturraldek ekimen honi esker
egin duen trukea bera: ez du ar-
gazki jakin bat eman, pertsona
interesatuak behar zuen zerbi-
tzu bat baizik. Tratuaren beste
aldean Lore Amenabar musika-
ria dago. Helsinkin bizi da, ber-



Miren Gonzalez Goikoetxea tolosarrak Irunen du tailerra. Gorka RUBIO | ARGAZKI PRESS



Alberto Lertxundi, trukatzeko dituen koadroekin. Gorka RUBIO | ARGAZKI PRESS



Arantxa Orbegozok erretratuak egiten ditu batez ere. Trukea esperientzia ezaguna du. Gorka RUBIO | ARGAZKI PRESS

tan egiten dituelako akordeoi ikasketak. Amenabar bere webgunea sortzen ari da eta hura hornitzeko argazkiak behar ziotuen. Horretarako jarri zen, Kulturtruk bidez, Iturralderekin harremanetan. Honek argazki saio bat egin dio eta bueltan musika-riak kontzertu bat eskaini zion Aranburu jauregian, iragan urtarrilaren 15ean.

Amenabarrek Internet bidez izan zuen ekimenaren berri. Ez zuen birritan pentsatu. Ideia «sinplea eta originala» iruditu zitzaion. Ura Iturralderekin kontaktuan jarri eta Helsinkitik Euskal Herrira zetorrela balia-tuz, hitzordua adostu zuten argazki saioa egiteko. Oso gustura gelditu dira biak. Bide batez, Lorentzat «etxean» jotzea «ohorea» izan da, bertan ezin ditue-lako kontzertuak erraz lortu. Kontzertua, gainera, Urarentzat bakarrik ez, egun hartan Aranburu jauregira bertaratu ziren guztientzat izan zen.

Mota guztietako adostasunak daude, handiak edo txikiak ta-mainan, baina guztiak garrantzitsuak, balore berekoak bi aldeak asetzen baditu.

Beste adibide bat jartzearren, Arantxak tratua egin du ingelesa ikasteko akademiak dituen gizon batekin. Bere erretratu baten truke, hainbat aste emango ditu atzerriko herrialde batean, familia baten etxean ingelesa praktikatzeko. Eta, ikasteaz gai-



Ura Iturralde, bidaia eta erreportaje argazkilaria. Gorka RUBIO | ARGAZKI PRESS

Elkarrizketa honetan parte hartu duten artistez gain, Iker Valle ere bada Kulturtruken parte. Sustatzaileek, gainera, Zumeta bezalako autore ezagunen babesa jaso dute, obra bat eskainiz

Dirua tartean ez dagoenean, beste balore batzuk azalarazten dira: ilusioa, poza, harremanak... Eta garrantzitsuena: artea zerbait eksklusiboa izatetik unibertsala izatera igarotzen da

TRATUA IDATZIZ, HITZEZ ESANDAKOA JASOTZEKO

Iragan abenduaren 18an inauguratu zen Kulturtruk ekimenaren baitan egin den aurreneko erakusketa eta gaur bertan itxiko ditu ateak. Ordea, koadroak, argazkiak eta eskulturak nomadak dira eta herriz herri, hiriz hiri joan nahi dute. Horregatik, orain beste udal batekin tratua ixten ari dira sustatzaileak, nahiz eta ezin duten oraindik beste ezer aurreratu. Interesa duten erakundeek Kulturtruk.com gunearen bidez jar daitezke sustatzaileekin harremanetan. «Desiratzen gaudel!», diote.

Tolosan harrena ona izan du eta jendearengan interesa piztu ere piztu du. Aretoetan honakoa izango da prozedura: koadro bakoitzak zenbaki bat du, eta, hartara, interesa duenak fitxa bat bete behar du, nahi duenaren erreferentzia jarri eta trukean zer eskaini nahi duen azalduz, zerbitzu bat edo objektu bat. Kontaktua utzi eta artista jarriko da berekin harremanetan.

Behin bi aldeek hitzordua jarri eta tratua itxita, hartutako konpromisoa idatziz jasoko da. Kopia bana banatzen dira, akordioari «formaltasuna» ematearren.

Hala ere, webguneak edozein unetan ahalbidetzen du trukea, erakusketara itxoin beharrik gabe. Gainera, etengabe artistak eransten joango dira, aldeaz aurretik epaimahai baten bidez hautatuak izango direnak, zehazki.

nera, esperientzia bikaina biziko du. «Beste modu batera, agian, berak ez luke nire obra bat izango eta ni ez nintzateke bidaia hau egitera animatuko. Biok irabazten dugu», uste du. Lertxundik azkena bezalakoak «truke potenteak» direla aitortu du, baina edozein motatakoak egon daitezkeela dio, betiere bi aldeak ados badaude. Adibidez, Gonzalez Goikoetxeak, egindako truke bati esker, urtebetez astero fruitu eta barazki saski bat jasozuen. «Bikaina!».

Beste tratua aipagarri bat ere egin du Orbegozok. Hamar aste-ko iraupena duen Internet ikastaro bat egiten ari da, eta, bueltan, koadro bat margotuko dio «bezeroari». Oraindik ez zaio obra iritsi, eta hemen sartzen da bien artean ezinbestekoa den konfiantza. «Ez du bakarrik konfiantza izan behar jasoko duela, baita gustatuko zaiola ere. Bi norabideetan egon behar gara ados. Konpromiso pertsonala askoz ere sakonagoa da».

Horretaz mintzo gara, bi pertsonen artean sortzen den lotura bereziaz. Mirenen ustez, «tartean dirurik ez dagoenean beste konexio bat sortzen da», hitzez azaltzea kostatzen zaion harremana da. «Tori dirua eta tori koadroa. Ez da hori. Konplizitatea deituko nioke, agerian uzten ditut balore batzuk». Hitza ematea eta betetzea, ilusioa, poza, norberaren gaitasunen gorapimena, zuzeneko harremanak...

Eta nolabaiteko sedukzioa. Sedukzioa? Bai. Bestea asetzeko, tratua itxi ahal izateko «bezeroak» zer eskain dezakeen ezagutzeko jokoa. Artistak erabat prest daude horretan parte hartzeko, dio irri bihurritz Lertxundik. Pentsatu zer egiteko gai zaren artista jakin baten lana etxean izateko, zer egingo zenukeen berau erakartzeko, hunkitzeko, artistak berak bere obra zure etxean jarri nahi izateko... Irudimena librea da, baita doakoa ere, Kulturtruk bezalaxe. Tartean dirurik onartzen ez duen ekimenak, gutxien-gutxienez, aberastu egingo ditu esperientzia honetan parte hartzen dutenak, alde batean edo bestean egon. Eta hori asko da.